

Urriaren 7an
URTEAN ZEHARREKO 27. IGANDEA

Agurra

Kristo, maitasunaren iturria, izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Maitasunaren jaia da Eukaristia. Maitasunak berdin egiten gaitu gizakiok: Jainkoak berdin maite gaituelako, mugarik eta bereizkeriarik gabe maitatzeko bokazioa jaso dugulako... Ospa dezagun Jainkoaren neurrigabeko maitasuna.

Damu-otoitza

Eska diezaiogun Kristori barkamena eta errukia:

—Jesus Jauna, herri guztien salbatzaile zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, barkamenaren testigu leiala. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, guztion batasuna nahi duzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
neurrigabea izanik zeure maitasuna,
guk merezi eta uste dugun baino gehiago
betetzen dituzu gure eskariak;
isur ezazu gure gainera zeure errukia,
gaiztakeria guztietatik garbi gaitzazun
eta eskatzera ausartzen ez garena ere eman diezaguzun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren salbamen-asmoan maitasunerako sortuak izan gara gizakiok. Joera sakon eta beharrezko hau, ez da bizitzako lokarri hutsa, Jainkoak egiaz maite gaituenaren ezaugarri bizi, baizik.

Lehenengo irakurgaia (Gn [Has] 2, 18-24)

Genesis liburutik

Jaungoiko Jaunak honela zioen bere baitan: «Ez da on, gizona bakarrik egotea; berari dagokion laguna egingo diot».

Eta Jaungoiko Jaunak landako abere eta zeruko hegazti guztiak egin zituen lurretik, eta gizonari ekarri zizkion, zer izen ematen zien ikusteko; eta bizidun orok, gizonak jarritako izena du bere izen. Eta gizonak izena ezarri zien abere guztiei eta zeruko hegazti guztiei, eta basa piztia guztiei; baina ez zen aurkitzen gizonari zegokion lagunik.

Orduan Jaungoiko Jaunak lo astun bat harrarazi zion gizonari; eta lo hartu zuen; saihets hezur bat kendu zion, eta hutsunea haragiz bete zuen; hari kendutako saihets hezurrez emakumea egin zuen Jaungoiko Jaunak, eta aurrera eraman zion gizonari. Eta gizonak esan zuen: «Hau bai dela nire hezurretako hezur eta nire mamiko mami. "Emakume" izango du izen, Gizonetik egina izan baita».

Horregatik gizonak aita-amak utziko ditu, eta bere emaztearekin elkartuko da; eta biak haragi bat izango dira.

Erantzun-salmoa (Sal 127, 1-2. 3. 4-5. 6)

A-ger - tu zu - re bi- hotz o - na. E-man, Zuk, Jau -
na, o - sa - su - na.



Dohatsu Jaunaren beldur dena,
 Haren bideetan dabilena!
 Zure eskuen lana baituzu jango,
 zoriotsu izango zara eta ongi zaizu joango. R/.

Zure emaztea mahasti emankorraren antzean,
 zure etxe barnean;
 zure seme-alabak badirudite olio-kimuak,
 zure mahai inguruan. R/.

Begira, hala izango da bedeinkatua gizona,
 Jaunari beldur diona.
 Jaunak Siondik bedeinka zaitzala,
 Jerusalem dohatsu ikusiz beti bizi zaitezela. R/.

Bigarren irakurgaia (*Heb 2, 9-11*)

Hebrearrei egindako epistolatik

Senideok: Apur batez aingeruak baino beheragotua izan den Jesus, orain aintzaz eta ederrez koroatua ikusten dugu, jasan zuen heriotzagatik; Jaungoikoaren onginahiz, guztien onerako hartu zuen heriotza.

Gauza guztiak Berarentzat eta Berarengatik egin zituenak, egoki iritzi zuen seme-alaba asko aintzara eramateko, haien salbamenaren egilea oinaze bidez bere betera eramatea. Santutzailea eta santu eginak, guztiak jatorri batetik datoz. Horregatik ez du, haiei «senide» deitzeko lotsarik.

Aleluia (1 Jn 4, 12b)

A - le - lu - ia, a le - lu - ia, a - le - lu - ia.

Elkar maite badugu, Jainkoa gurekin dago
 eta Haren maitasuna
 bere betera iritsi da gure artean. R/.

Ebanjelioa (Mk 10, 2-16)**Homiliarako argibideak**

Segizioa: erabatekoa, erabetekoa

Jesus Jerusalemeko doa. Erabaki sendoz eta atzera bueltarik ez duen bidetik. Ikasleek ez diote ulertu; baina ulertuko diote, berak ere bide luzea egin behar izan baitu ulertu ahal izateko.

Aitaren borondateak era honetan eta bide honetatik darama bere asmoa. Aitak nahi duen mesianismoa ez da gure moldekoa, ez da txaloz oretzen, ez da ikusgarria. Eta Jesusek ikasi du Aitaren gogoia egiten.

Baina, Jesusen bide horrek zer esan nahi du, zer ondorio dakartza? Eta era askotako adibidez argitzen du Jesusek bide horren muina. Handikeriarik eta jarleku distiratsurik ez; ume batek gizarte hartan zuen azken lekua baizik. Alderdikeria eta taldekeriarik ez; Espirituaren askatasuna aitortzea baizik. Eta gaurkoan, ezkontzaren adibideaz baliaturik, segizio-bide honen azkenerainoko erabakia adierazten digu. Bide hau erabatekoa eta erabetekoa da.

Horrek zer esan nahi du baina? Nik uste dut gauza bat erabat garbi geratzen ari zaigula: Jesusek dei egiten duenean, ez digu dei egiten agindu baten bidez eta indarrez; maitasunaren eraginez baizik. Eta segizioan maitasunaren dinamikak balio du, ez beste ezerk. Eta badakigu, noski, maitasunak, bere asmo jatorrikoan, betirako eta neurri gabea izan nahi duela. Neurriak eta mugak aurrez pentsatuta dauzkan maitasuna ez da benetako maitasuna. Maitasunak, bere bokazioz, betirakoa eta neurri gabea nahi du izan.

Zer gertatzen zen ezkontzarekin Jesusen garaian?, edo zer gertatzen da gaur? Maitasunaren hasierako bokazioa, giza bideak halakoxeak izan!, geure neurrietara tolestatzen dugula. Eta Jesusen garaian, emakumeak askorik balio ez zuenean, dena gizonezkoaren mesederako legezkatua zeukaten. Eta gure garaian, emakumea bere duintasuna berreskuratzen ari denean, beste era batera daukagu legezkatua. Baina, kasu bietan, maitasunaren hasierako bokazioa geure baldintzetara daukagula egokitua.

Eta hori Jesusen bidearen eta segizioaren adibide baldin bada, gauza beretsua gertatzen zaigu: Jesusi jarraitzea ere geure baldintzetara tolestatu dugu. Eta askotan betebeharrak eta mandamentu batzuetara mugatu dugu. Debozio eta otoitz batzuetara besteetan. Edo ideologia bat babestera zenbaitetan. Edo elizkide izatera. Baina ez dugu ireki maitasunaren neurrigabeko asmo sakon eta jainkozko batera. Eta orduan, merkealdiak datoz, lasabideak, ulertu beharreko mozketak eta murrizketak.

Baina, Jesusek bere ikasleen segizioa, berea bezalaxe, azken muturreraino luzatu eta zabaldu nahi du. Neurriak eta mugak jartzen dituen erabakia, beste zerbait izango da, baina maitasuna ez. Maitasunak, bere freskotasun ederrean, betikoa eta osoa nahi du izan. Gero gerokoak, noski. Baina, hasierako erabakia beti erabatekoa eta erabetekoa da. Eta, jakina!, hortik geure neurriko

emaitzak eta edertasunak jasoko ditugu edo maitasun betearen emaitza eta edertasunak. Segun zer eta nola bizi dugun, halako betetasuna izango du gure fede-bideak.

Jesusen segizioan ez dago zabarkeriarik. Ez dago erdipurdikeriarik. Bai, batek bekatu egin dezake; baina bekatuari larritasuna kentzeko ezin daitezke neurriak gutxitu. Txarra ez da bekatu egitea; txarra da ez maitatzea. Maitasunari bere gordintasunean eutsiz bekatu egiten duenak, badauka zeri heldua. Onartu ezinekoa bestea da: dena erdibidera ekartzea, dena erlatibizatzea, segizioari pisua kentzea. Dena berdin da; hau edo hura ez dago alde handirik; erlijio bat edo bestea, igualtsu da; Jesus edo Mahoma, halatsu... Eta gaur egun erlatibizazio gutxiztaile hau nahikoa bistan darabilgu.

Jesusen segizioa maitasunaren iturritik sortzen da eta, azken batean, maitasuna da. Maitasunarekin ez dago jolasik. Maitasuna beti erabatekoa eta erabetekoa da!

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: Espirituak gudan sortzen duen seme-alabatzako konfiantzaz beterik, zuzen diezazkiogun gure eskariak Jaunari:

- Elizaren alde: fededun guztien testigantza biziarekin, ager diezaiela gizaki guztiei Jainkoaren salbamena. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herri agintarien alde: izan dezatela argitasuna gizaki guztien arteko bakea, ongizatea eta erlijio-askatasuna bermatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gerra eta ezina nozitzen duten herrien alde: indarkeria, suntsiketa eta mina alde batera utzi eta bizikidetzaren alde joka dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.

—Hemen bilduak gaudenon alde: Jainkoak argi ditzan gure bihotzeko begiak, jaso dugun deiaren handitasuna ikusteko. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Zuk sortu dituzu gizakiak, maitasunean bat izan daitezen; emaguzu hasierako maitasuna, batasunaren eta leialtasunaren dohainez elkar maite dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
ogi-ardo hauetan hartu ditugun Kristoren gorputz-odolek
Beraren irudiko egin gaitzatela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**